

3

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

PRODUKZIO ALIANTZAK

Zaborrontzia diseinatzeaz arduratzen gara, baina ez gara eraikitzeaz arduratuko. Beharrezko materialak plastiko birziklatua eta altzairu herdoilgaitza dira. Materiala duten, manipulatu dezaketen eta, azkenik, kuboa eraiki dezaketen enpresekin harremanetan jarri behar gara.

DISTRIBUZIO ALIANTZAK

Produktua daukagunean, garraiatu egin behar dugu. Zaborrontziak sortzen direnean, ez dira kopuru txikietan egingo. Batez ere, garraio-kudeaketa behar duten kopuru handietan, enpresa kualifikatu bat arduratu ahal izateko. Enpresa hori arduratuko da produktua gure bulegora ekartzeaz ez ezik, saldu behar den saltoki handietara eramateaz ere.

Bestalde, gure produktua Internet bitartez salduko dugunez, bezeroen etxeetara eramago duen garraio-enpresa baten laguntza ere beharko dugu. Internet bidezko salmenta berezia denez, garraio-enpresa txikiago batek har dezake bere gain.

SALMENTARAKO ALIANTZAK

Aipatu bezala, internet bidezko salmenta eskain dezakegu. Baina denda fisikoetan gure produktua saldu ahal izateko saltoki handiak izateak erakusketa handiagoa emango digu. Horregatik, lagungarri zaigu gure zabor hermetikoaren salmenta egin dezaketen altzari-dendekin harremanetan jartzea.

Denda hauek izan daitezke supermerkatuak (**Eroski, Lidl, El Corte Inglés**), altzari dendak (**Ikea, Leroy Merlin, Comforama**) eta teknologia dendak (**Media Markt, Worten**)

FINANTZIAZIO ALIANTZAK

Jada hitz egin dugu gure produktuak birziklatzea sustatzen duen modua, barrualderako modu erosoan eginez. Ekimen honek erakunde publikoen arreta deitu dezake, produktua aprobetxa baitezakete herritarrak ekologikoagoak izatera bultzatzeko.

Horregatik, gure aukeretako bat udalarekin harremanetan jartzea da. Gure proiektua aurkeztea, finantziazioan laguntza bilatzeko.